

LEZO / Udal Liburutegiak Olerki eta Ipuin Sariak aurten berriz antolatu ditu

Idazlanak azaroaren 21etik 26ra biak barne aurkeztu behar dira

LUISMA RODRIGUEZ/LEZO. DV. Lezoko Udal Liburutegiak, haur eta gaztetxoek literatur zaletasuna suspertzeko egitaraua barnean, XII. Jon Garbizu Olerki Saria eta XII. Lope Isastikoa Ipuin Saria berriro antolatu ditu.

Oinarriak hauexek dira: Partehartzaileak, lezoarrak edo Lezoko Udal Liburutegiko



Haurrak literaturarako hurbiltzeko sariak eta tailerrak egokiak dira. [ARIZMENDI]

bazkideak izango dira: A maila: 6 eta 7 urtekoak; B maila: 8 eta 9 urtekoak; D maila: 10 eta 11 urtekoak eta E maila: 12, 13 eta 14 urtekoak.

Idazlanak, euskaraz idatzitako olerkiak (hitz jokoak barne) edo ipuinak izango dira, gai librekoak, inoiz argitara gabeak eta gehienez 3 orrikoak.

Aurkezpenerako baldintzak: azalean izenburua idatziko da. Lan bakoitzeko gutunazal itxi bat aurkeztuko da (gutunazalaren kanpoko aldean lanaren izenburua eta egilearen adina azalduko dira, eta barruko aldean helbidea, telefonoa eta izen-abizenak). Lana kanpoan joango da, eta gutunazala lanari grapaz josita. Orrietan edo gutunazalean ikastetxearen izena dakarren lanik ez da onartuko.

Aurkezpenerako epea: Idazlanak azaroaren 21etik 26ra (biak barne) aurkeztu behar dira Udal Liburutegian.

Epaimahaia, antolatzaileek izendatuko dute eta bere erabakia onartu beharrekoa izango da. Kalitate faltan sariak eman gabe gera daitezke.

Sariak

Sariak hauexek dira: A maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (bata olerki arlorako eta bestea ipuin arlorako); B maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (arlotan bakoitzeko bana); D maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (arlotan bakoitzeko bana); E maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (arlotan bakoitzeko bana).

Sariak Udal Liburutegian emango dira abenduaren 16an, arratsaldeko 7:00etan. Lanak 2006ko urtarrilaren 31 bitartean berreskuratu ahal izango dira Udal Liburutegian. Epe horretan jaso ez direnak suntsitu egingo dira. Lehiaketan parte hartzeak oinarri guzti hauek onartzen direla esan nahi du.

Taller literario

El próximo sábado día 15 de octubre y el siguiente, el día 22, se va a llevar a cabo una nueva edición del Taller Infantil Literario que todos los años por estas fechas organiza la Biblioteca Municipal de Lezo y que va dirigido a niños-as de 9, 10 y 11 años, que estén interesados en adquirir los primeros rudimentos literarios.

El monitor encargado del taller será Mikel Susperregi y como siempre el objetivo que se persigue con este taller es el de fomentar el placer por la literatura y por la lectura desde edades muy tempranas.